

GetxoMeeting, martxoaren 9an: sareak sortzen dituzten sareak.

Ekintzaileek hamabost egunean behin egiten duten topaketan, joan den ostegunean ere egin zena, oso jende ezberdina batu zen, baina denak ere interes berdintsuekin: kontaktuak sortzea, ikastea, inspirazioa lortzea, errutinatik irtetea eta beste enpresa-esperientzia batzuk ezagutzea kafe bat hartzen duten bitartean...

Bakoitzak zer espero duen azaltzeko lehenengo txanda egin ondoren, parte hartzaileek aurretik adostutako gaietaz buruz hitz egin zuten, taldeka, eta gero gogoeta bat egin zuten gai horiek ekintzailetzarekin daukaten konexioari buruz.

Enpresak modu original batean aurkezteko, dinamika bat proposatu zen: bakoitzaren lanbidea asmatzea, hitz klabeen bidez eta beste baliabide batzuen bidez. Horrek hurbileko eta konfiantzazko giroa sortu zuen berehala.

Bitarteko kafean, gai asko zeuden eztabaidatzeko, eta GetxoMeetingen ohikoa bihurtu den dinamika landu genuen: "Zurekin hitz egin nahi nuen".

Azken ariketa bat egin zen, sortzeko helburuz: Pertsona bakoitzak sustapenerako ekitaldi edo ekintza jakin bat pentsatu behar zuen, publiko jakin batentzako helburu bat betetzen lagunduko ziona. Taldeka aholkuak partekatzeko aukera egon zen, ekintza horiek gauzatzeko, eta epe barruan bukatzeko, ondorioak azaltzeko txanda azkar batekin.

Saioan parte hartu zutenentzat, ideia berriak asmatzeko eta profesionalak eta ikuspegi berriak ezagutzeko balio izan zuen. Eta beste pertsona batzuk, berriz, gauzak praktikan jartzeko edo negozio-batzarren bat planteatzeko motibatu ziren.

GetxoMeeting guztiak ezberdinak dira, planteatzen diren dinamika eta elkarrizketengatik, eta pertsona ezberdinak datozelako beti. Horrek interesa ematen dio, kontaktu berriak sortzen dituelako eta sareak sortzeko aukerak ere bai. Eta topaketetara joaten den jendea konpartitzeko gogoz eta eskuzabaltasunez joaten denez gero, konexioak sortzen dira, ezagutzak partekatzen dira, eta ate interesgarriak irekitzen dira, formatu presentzian bakarrik posible direnak.

Hurrengo doako topaketan zain izango gaituzu, martxoaren 23an. Aldez aurretik izena eman behar da. Honela egin dezakezu:

getxolan@getxo.eus

944660140

Edo Getxolanen egoitzan (Getxo Elkartegia; Ogoño kalea 1, Areeta)

Etorri zeure sarea hazi araztera, eta zuri eta zure enpresari interesatzen zaizuenaz hitz egitera.